



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

48 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Lege proiektua (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Osasun Departamentuari kreditu osagarria emateari buruzkoa (7. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa. Horren bidez, Bardeetako Tiro Poligonoa deuseztuari buruzko zenbait erabaki har daitezen premiatzen da, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du soldaduntzaren ordezkio zerbitzua eta derrigorrezko soldadutza desagertzearen alde dagoela, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkeztua (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Bardeetako Tiro Poligonoaren aurka dagoela, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako urreztalurrei buruzko plan bat bidal dezan, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aragoiko Diputazio Orokorrarekin hitzarmen bat izenpetu dezan Las Planas de la Negrán jartzeko den parke eolikoa gelditzeko, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sendagileek preskribitzeko askatasunaren printzipioarekin loturiko neurriak har ditzan, José M^a Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (15. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Ave María” ikastetxean “D” ereduan matrikulatutako ikasleen gela zatibitu dezan, Juan Andrés Platero Alda Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak salbuespen gisa “San Francisco” ikastetxean “D” ereduan matrikulatutako ikasleekin neurriak har ditzan eskatzen da, Juan Andrés Platero Alda Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuapremiatzen da Arte Ederretako Eskolan, arte batxilergoaren irakaskuntzan, “D” eredua ezar dezan, Juan Andrés Platero Alda Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “José M^a Iribarren” ikastetxe publikoan eta “Ermitagaña BHI”n “D” ereduko lerro bana ireki dezan, Juan Andrés Platero Alda Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (18. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Osasunbideko osasun zentroetarako Arrow Iberica enpresak egindako osasun materialaren horniketari buruzko galdera, Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak egina (19. or.).
- “Kohesio Fondoak”, 36365-1 lerroa, aurrekontu kontusailari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- Ekonomia Zuzendari Orokorak emandako 201/98 Ebazpenak agintzen duen aurrekontu aldaketari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (20. or.).
- “Errentamenduen Arbitraje Batzordearen Baloreetarako Dietak” 26460-5 lerroa izeneko kontusailera egindako kreditu-transferentziari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” kontusailaren kargura baimendutako mugimenduei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- Etxegarate destolesteko obren bukaerari buruzko galdera, Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak egina (22. or.).
- Oliba sektorearen inguruan burututako jardueri buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (22. or.).
- Baztango aldean gertatu diren telebista-emisioen mozketei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (24. or.).
- Tausteko Udalerriko Plana de la Negra izeneko tokian parke eoliko bat jartzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (25. or.).
- Zolina eta Getze aldeko aintziretako lohi kutsakorrei buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (26. or.).
- Lizarrako hilerriko general karlisten mausoleoaren lagapenari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (27. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1998ko ekainaren 8an hartutako Erabakiaren bidez, Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Lege proiektua ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 1998ko irailaren 12ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak Nafarroan estatistika

jarduera arautzen duen lege markoa ezarri zuen, Foru Komunitateko errealitate sozial, ekonomiko eta demografikoari buruz behar adina informazio, fidagarria eta alderagarria, edukitzeko helburuarekin.

Lege testu horrek berak arautzen ditu datuak eman eta informazioa erabiltzen dutenen eta estatistika jarduera garatu eta betetzen duen organoaren arteko harremanak, eta datuak eman beharra, emaitzen argitalpena eta zabalkunde egokia eta sekretu estatistikoa izatea ezartzen ditu. Era berean, Estatistika Plana estatistika jarduera sustatu, antolatu eta planifikatzeko tresna egokitzat hartzen du. Jarduera hori Nafarroako Estatistika Sistemak beteko du.

Lege testu honek aipatutako 11/1997 Foru Legean ezarritako aurreikuspenak garatzen ditu eta, halaber, Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planaren helburua ezartzen du, alegia, erakunde publikoei eta gizarte eragileei, erabakiak hartzeko baliagarriak izanen zaizkien estatistika jarduerak egitea, honako abiapuntu hauekin: ahal den kosturik txikiena eta dauden iturrien probetxamendu handiena, bikoiztasunak saihestuz, hiritar, enpresa eta erakundeendako ahalik eta traba gutxien sortuz eta sekretu estatistikoa bermatuz.

Adierazitako helburu orokorra erdiesteko, zenbait alderdi garatzen dira, ekonomia, gizartea, demografia eta ingurugiroari buruzko informazioa zabaltzeko eta sustatzeko dagokionez, batetik, eta bestetik, Nafarroako Estatistika Sistemaren etengabeko sendotzeari, informazio estatistikoaren zabalkunde bideak bultzatzeari eta estatistika publikoan espezializaturik dauden langileen prestakuntzari dagokienez.

Horrez gain, Foru Lege honek Nafarroako Gobernuaren eta entitate publiko zein nazioarteko erakundeen arteko lankidetzaren instituzionalaren harremanak ezartzen ditu, bai eta Nafarroako Estatistika Erakundeak Plan hau betetzen izanen dituen eginkizunak ere.

I. Kapitula Xedapen orokorrak

1. artikulua. Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planak, Foru Lege honek onesten duenak, Nafarroako Foru Komunitateko estatistika jarduera sustatu, antolatu eta planifikatzeko tresna den aldetik, lankidetzaren instituzionalaren marko zehazten du, zehazki Nafarroako Gobernuaren eta honako hauen artean:

- a) Haren erakunde eta enpresak.
- b) Entitate publikoak.
- c) Erakunde nazionalak eta nazioartekoak.

Lankidetzaren horren xedea da Nafarroako Estatistika Sistema, bere inguruko sistemakiko, koherentzia, homogeneotasuna eta alderagarritasuna lortzen joatea.

2. artikulua. Nafarroako 1999-2002. urteetako Estatistika Planak, Arau honetan bildutakoak, indarra izanen du 1999ko urtarrilaren 1etik 2002ko abenduaren 31ra bitarte.

3. artikulua. 1. artikuluko a) letran aipatutako entitateek Plan honek eta berau garatzen duten Estatistikako Urteko Programek haien esku utzitako estatistikak prestatuko dituzte, zuzenean edo beste entitate batzuekin elkarlanean.

4. artikulua. Nafarroako Estatistika Erakundeak Estatistika Plana eta Estatistikako Urteko Programak bultzatuko ditu eta helburu horrekin honako eginkizun hauek beteko:

a) Estatistikako Urteko Programarako proiektuak prestatu eta horien izapidaketa eta onespenera bultzatzea.

b) Nafarroako Administrazio Publikoek Estatistika Planak eta Estatistika Urteko Programek haien esku utzitako estatistika eragiketatarako behar dituzten aholkularitza teknikoko zerbitzuak ematea.

c) Foru Lege honek eta berau garatzen duten Estatistika Urteko Programek haren esku utzitako estatistika jarduera instrumentalak egin edo proposatzea.

d) Nafarroako Estatistikari buruzko 11/1997 Foru Legeak estatistikak erregulatzeko aurreikusten dituen arau teknikoaren proiektuak, Estatistika Planak eta berau garatzeko emandako Estatistika Urteko Programek haren esku utzitakoak, prestatu eta horien izapidaketa eta onespenera bultzatzea.

e) Nafarroako Administrazio Publikoek, Estatistika Planak eta Estatistika Urteko Programek

haien esku utzitako estatistikak estatistikari buruzko legedia betez prestatzen dutela zaintzea.

f) Nafarroan, informazio eta dokumentazio estatistikaren inbentarioa egin eta haren mantentimendua egitea.

g) Nafarroako Estatistika Planean sartuta dauden estatistikaren jarraipena egitea.

h) Estatistikaren arloan behar diren harremanak sustatzea Foru Lege honen 1. artikuluan aipatzen diren entitateekin.

5. artikulua. Foru Lege honen ondorioetarako, estatistikako jardueratzat hartuko dira:

a) Estatistikak egiteko datuak, kopuruari zein kalitateari begira, bildu, lortu, tratatu eta gordetzea, emaitzak argitaratu eta zabaltzea eta antzeko izaera duen beste edozein, Nafarroako Estatistikari buruzko 11/1997 Foru Legearen 1. artikuluan ezarritakoarekin bat.

b) Aurreko letran zehaztutako aurretikoak edo osagarriak diren jarduerak instrumentalak, legeak eska ditzakeenak edo teknikoki beharrezkoak direnak estatistikaren arloko legediak ezartzen duena bete ahal izateko, hau da, estatistikaren arloko prestakuntza espezifikoagokoak, ikerketa eta teknika, metodologia eta arauen garapeneko jarduerak.

II. kapitula Estatistika Planaren Helburuak

6. artikulua. Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planaren helburu orokorra datu estatistikoko multzo koherente, fidagarri eta eguneratua lortzea da, ahal den kosturik txikienarekin, dauden iturrien ahalik eta probetxamendu handienarekin eta bikoiztasunik gertatu gabe, Nafarroako errealitatea, ekonomia, demografia, gizartea, ingurugiroa eta lurraldearen esparruetan, ezagutzeko bide emanen duena eta erakunde publikoek eta gizarte eragileei baliagarria izanen zaiena erabakiak hartzeko, hori guztia hiritarrei ahal den traba gutxien sortuz eta sekretu estatistikoa bermatuz.

7. artikulua. Aurreko artikuluan ezarritako helburu orokorra funtsezko eta oinarritzko irizpidea izanen da Estatistika Plana betetzean esku hartzen duten organo guztiendako erabakiak hartzerakoan, eta Foru Lege honen eta berau bete eta garatzeko ematen diren xedapenen interpretaziorako irizpidetzat hartuko da.

8. artikulua. Helburu orokorra erdiesteko, informazio helburu berariazkoak, bai eta instrumentalak ere, ezartzen dira.

9. artikulua. Informazioari dagokionez, hauek dira helburu berariazkoak:

a) Informazio ekonomikoa handitzea, bilakaera ekonomikoaren jarraipen zehatz eta eguneratua ezarri ahal izateko, lan merkatua eta ekoizpen jarduna hobeki ezagutzeko bide emanen duten estatistiken bitartez.

b) Demografian eta honek beste arloekin duen loturan sakontzea, bereziki lan merkatuari, giza baliabideen prestakuntzari, osasunaren arloko planifikazioari eta biztanleen gizarte ongizateari dagokienez.

c) Estatistika sozialak sustatzea, eta halaber, biztanleen bizi kalitatean eragina duten alderdiak hobeki ezagutzen laguntzen duten adierazleak.

d) Ingurugiroaren arloko estatistikak garatzea, natur baliabideen egoera, ingurugiroaren bilakera eta bestelako fenomeno ekonomiko eta sozialak duen lotura zehatz-mehatz ezagutzea lortzeko.

10. artikulua. Honako hauek dira berariazko helburu instrumentalak:

a) Nafarroako Estatistika Sistemaren artikulazioa sendotzea honakoak bermatzeko: intimitatea gordetzea, sekretu estatistikoa, egindako estatistiken zehaztasuna eta zuzentasun teknikoa, emaitzen zabalkundea eta segurtasuna informazioa gorde eta ematean.

b) Nafarroako Estatistika Sistemaren eta estatuko, Europako eta Administrazio autonomikoetako sistemen arteko lankidetzaren instituzionalaren alde egitea, dauden iturriez baliatu, alderdi guztien intereseko proiektuak egin eta baliabideak aurreztu ahal izateko, bai eta hiritarrei eta enpresei informazio eskaerak behin baino gehiagotan ez luzatzeko.

c) Informazio estatistikoa zabaltzeko bideak bultzatzea, Nafarroako estatistika zabalkunderako sistema integratua ezartzeko bide eman eta erabiltzaileek informazioa eskura izatea erraz dezaten.

d) Nafarroako estatistika publikoaren arloko prestakuntza berariazkoak eta hobekuntzarako behar diren jarduerak betetzea, Nafarroako Estatistika Sistemari sartuta dauden langileei, bai eta beste profesional eta erabiltzaileei ere, metodo, teknika eta iturri estatistikoa hobeki ezagutzeko aukera eman diezaien.

e) Estatistikaren arloko ikerketa sustatzea, alderdi metodologikoetan eta Foru Komunitatearentzat interesa duten gaiak aplikatutakoetan, Nafarroako errealitatea, ekonomia, demografia,

gizartea, ingurugiroa eta lurraldeari dagokienez, hobeki ezagutzen laguntzeko.

f) Nafarroako Estatistika Sistemak emandako informazioaren normalizazioa, homogeneotasuna eta alderagarritasuna, Estatuko eta Europako sistemarekiko, sustatzea.

g) Nafarroako informazio estatistikoaren lurralde erreferentziazioa garatzea.

III. kapitulua Estatistika Planaren garapena

11. artikulua. 1. Informazio helburu berariazkoak, Eranskinean ageri direnak, Estatistikako Urteko Programen bidez garatuko dira. Programa horiek zehaztuko dituzte urte bakoitzean egin beharreko jarduerak.

2. Helburu instrumental berariazkoak horretarako onetsiko diren programen bidez garatuko dira.

12. artikulua. 1. Estatistikako Urteko Programetan, Planean agertzen ez diren eragiketak sartu ahal izanen dira, beti ere baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Nafarroako Estatistika Planaren helburuetarako egokiak izatea.

b) Haien funtsezko osagaiak, bereziki Nafarroako estatistikari buruzko 11/1997 Foru Legearen 27.2b artikuluan aurreikusitako zehaztapenak, agertzen dituen oinarriko proiektu tekniko bat izatea, bete beharreko jardura estatistikoaren fidagarritasuna bermatzeko.

c) Aplikatzekoak diren zehaztapen teknikoei lotzea.

d) Haren metodologiatik emaitza fidagarriak eta beste estatistika batzuekiko alderagarriak lortzeko bide ematea.

e) Bidezkoa den kasuetan, aldizka eguneratzeko aukera ematea.

f) Teknikoki erabili ahal den lurralde bereizketa handienarekin egitea, hori erabilgarritzat jotzen denean.

g) Emaitzak zabaltzeko modua aurreikustea.

2. Estatistika jardura horiek Estatistikako Urteko Planetan sartu eta burutuko dira, beti ere aurrekontu eta antolaketako baldintzen arabera.

3. Plana garatuko duten Estatistikako Urteko Programetan zehaztuko da zein diren estatistika jardura sendotuen kalifikazioa izanen dutenak, hurrengo Programetan mantentzeko. Estatistika sendotutzat hartuko da errealitatea ezagutzeko

balioa eta erabilgarritasuna dituela erakusten duena, estatistikako serie bat sortzen duen aldizkako jarduera izanik.

Estatistikako jarduerak sendotuen kalifikazioa harturik, artikuluko honen 1. zenbakian ezarritako baldintzak, hurrengo programetan sartzeko ondorioetarako, betetzen dituela ulertuko da.

4. Estatistikako Urteko Programetan sartutako estatistika jarduerak Nafarroako Foru Komunitateko estatistika ofizialak izanen dira, eta horiek prestatzeko eskatzen diren datuak ematea nahitaezkoa izanen da, Nafarroako Estatistikari buruzko 11/1997 Foru Legearen 23. artikuluan ezarritakoa-ri jarraikiz.

13. artikulua. Nafarroako Estatistikari buruzko 11/1997 Foru Legearen 28.1 artikuluan aurreikusitakoaren babesean egindako eragiketa estatistikoek aurreko artikuluan araututako eragiketei eskatzen zaizkien baldintzak bete beharko dituzte.

14. artikulua. 1. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Estatistika Kontseiluaren txostena eskuratu ondoren, Estatistikako Urteko Programa onetsiko du Programaren urtearen aurreko abenduaren 31 baino lehen.

2. Estatistikako Urteko Programaren indarraldia urte naturalarena izanen da, baina luzatu ahal izanen da hurrengo onetsi bitartean, haien izaera dela-eta jarraipena beharrezkoa duten jardueren kasuan.

15. artikulua. Nafarroako Estatistika Erakundeak Estatistikako Urteko Programa bakoitzaren jarraipen txostena eginen du Nafarroako Gobernuak onetsi dezan, bidezko baldin bada.

Era berean, Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planaren ebaluazio proposamena eginen du, hura amaitu ondoren, Nafarroako Gobernuak onetsi dezan.

Agiri hauek aldeztu aurretik emanen zaizkio jakitera Nafarroako Estatistika Kontseiluari.

IV. kapitula **Lankidetzaren instituzionala**

16. artikulua. 1. Entitate laguntzaileak izanen dira Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin bi alderdien intereseko helbuetarako hitzarmenak izenpetzen dituztenak.

2. Aipatutako Departamentuak, Nafarroako Estatistika Erakundearen bidez, eta entitate laguntzaileek beren intereseko informazio estatistikoa luzatuko diote elkarri, bai eta estatistikak prestatzeko behar den aholkularitza teknikoa ere.

17. artikulua. Nafarroako Estatistika Erakundeak estatistika jarduerak betetzen dituzten entitate edo erakunde mota guztiei zuzendu ahal izanen zaie, interesgarria deritzon, Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planaren ezarritako helburuen kudeaketaren ondorioetarako, ez besterik.

18. artikulua. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak lankidetzaren teknikorako akordioak izenpetu ahal izanen ditu aurreko artikuluan aipatzen diren entitate eta erakundeekin.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuak Foru Lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, gehienez ere, onetsiko du 1999. urteko Estatistika Plana.

Xedapen indargabetzailea

Foru Lege honetan aurreikusitakoaren kontra doazen maila bereko edo txikiagoko xedapen oro indarrak gabe gelditzen da.

Azken xedapenak

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Foru Lege honetan aurreikusitakoa garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

(Aipatutako eranskina Foru Parlamentari jaun-andreen eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

Foru Lege proiektua, Osasun Departamentuari kreditu osagarria emateari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1998ko ekainaren 15ean hartutako Erabakiaren bidez, Osasun Departamentuari kreditu osagarria emateari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat eta Bozera-maileen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Osasun Departamentuari kreditu osagarria emateari buruzko Foru Lege proiektuaren biderapena zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jarzea.

Bigarrena.- Emendakinak Biltzarreko Mahairen aurrean aurkezteko epea irekitzea. Epe hori eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen bukatuko da.

Hirugarrena.- Proiektu hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proiektua, Osasun Departamentuari kreditu osagarria emateari buruzkoa

Osasun Departamentuko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurrekontuetan gora-beherak izan dira azken honetan; batetik, 1997ko ekitaldian izandako defizitarengatik, horren ondorioz ukituriko kontzeptuen aurrekontu dotazioetan kreditu-eskasia izan baita, eta bestetik, Nafarroa-

ko Ospitalean inbertsioak egiteko aurrekontuetan dagoen kontsignazio urriarengatik.

Gauzak horrela, behar horiei erantzun ahal izateko egoki den kreditu osagarri bat eman da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 44. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

1. artikulua. 509.000.000 pezetako kreditu osagarri bat eman da Osasun Departamentuaren beharrei erantzuteko. Osagarri hori aplikatuko zaie aurrekontuetako ondoko kontusailei:

- 52202-2590-4112 kontusaila, 48000 proiektua, 22960-5 lerroa, “Osasun laguntza beste zentro batzuetan” izenekoa: 13.400.000 pezeta.

- 52202-2590-4112 kontusaila, 48000 proiektua, 22980-0 lerroa, “Etxez etxeko dialisietarako itunak” izenekoa: 5.000.000 pezeta.

- 52202-2590-4112 kontusaila, 48000 proiektua, 22990-7 lerroa, “Oxigenoterapiarako itunak” izenekoa: 18.600.000 pezeta.

- 52202-2590-4112 kontusaila, 48000 proiektua, 23000-0 lerroa, “Unibertsitateko Klinikarekin Ituna” izenekoa: 267.000.000 pezeta.

- 52230-6020-4127 kontusaila, 42000 proiektua, 95023-1 lerroa, “Zaharberritzeko planaren obrak” izenekoa: 105.000.000 pezeta.

- 52230-6057-4127 kontusaila, 42000 proiektua, 95021-5 lerroa, “Ekipamendu medikoa izenekoa: 100.000.000 pezeta.

2. artikulua. Kreditu osagarri horren finantzazioa honako kontusaileko dirusarrerara handiagoen kontura egingen da: 11400-8700 kontusaila, 12000 proiektua, 35465-2 lerroa, “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” izenekoa, 509.000.000 pezeta egin arte.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege Proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145.2 artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena**ZIOEN AZALPENA**

Estatuak Lurzoruaren Erregimenari eta Balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legea onetsi izana eraso gogorra izan da Nafarroak hirigintzaren arloan duen subiranotasunaren aurka.

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legearen oinarri eta artikulua asko eta asko indarrak gabe gelditu dira: lurzoruaren erregimena, lurzoruaren sailkapena, lurzoruaren udal ondarea eta abar.

Hain zuzen ere, 14.2.c) eta 18.4 artikuluek ezartzen dute jabeek gehienez ere hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriko probetxamenduaren % 10 laga behar dutela, eta aukera ematen dute ehuneko hori hirigintza legediaren bidez murrizteko; legedi horrek, gainera, aukera ematen du jarduten duen Administrazioak lurzoru horri dagozkion hirigintza kargetan duen partehartzea murrizteko.

Estatuko legea Foru Komunitateko hirigintzari buruzko legediarekin alderatuz gero, ateratzen den ondorioa da 10/1994 Foru Legearen 13. artikuluan finkaturiko eskubidea % 15era murriztu dela, eta Estatuko legeak behartzen duela gehieze ere % 10 izatera.

Ondorioz, Estatuko inposizioa gure autonomia kaxkarra baino maila altuagokoa denez, berehala aplikatu behar da % 15etik % 10erako murrizketa hori izapidatzen ari diren hirigintza espedientee-tan, hirigintza kargen balizko murrizketa –aukera-koa delako– berehala aplikatzekoa ez bada ere.

Beraz, beste hainbestetan bezala, lurzoruaren ondare publikoak Estatuko inposizioen ondorioak jasan behar ditu, Nafarroako Gobernuak eta sostengua ematen dion alderdiak –UPN– besoak uztartuta gelditzen den bitartean, harro asko, ustez nahas-mahas honetan laguntza eman dute-lako, Madrilen dituen senatore eta diputatuen botoei esker.

Beraz, presa larrikoa da Parlamentu honek, bere eskurantzak erabiliz, behar diren urratsak ematea Estatuko botereak Lurzoruaren Ondare Publikoarekin gauzatu duen nahasmena murrizteko. Horretarako Foru Lege batez ezarriko da Administrazio jardulearen alde egiten diren hirigintza probetxamenduaren lagapenari dagozkion lurzoru-lagapenak doakoak eta urbanizatuak izatea, lagapen horren ondorioz Administrazio jarduleak hirigintza-kargarik batere ez izateko moduan.

Neurri hori ez ezartzeak are larriagoa egiten du inposatutako murrizpena Lurzoruaren Ondare Publikoentzat.

Horrenbestez, Parlamentari Talde honek Parlamentuari proposatzen dio hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriko hirigintza probetxamenduaren lagapenari dagokion lagapen doakoa eta kargarik gabekoa arau dezan.

TESTU ARAUEMAILEA

1. artikulua. 13. artikuluari idazati berria gehituko zaio. Testu hau izanen du:

3. Administrazio jardulearen aldeko hirigintza probetxamenduaren lagapena, artikulua honetan ezarritakoa, doakoa eta urbanizazio kargarik gabekoa izanen da; lagako den lurzorua erabat urbanizatuta egonen da.

2. artikulua. Hamaikagarren xedapen iragankorra gehituko da. Testu hau izanen du:

Hamaikagarrena. Foru Lege hau indarrean sartzen den egunean, behin betiko onespena lortu ez duten etekin eta kargen banaketa-prozeduretan, Foru Lege honetan bertan bildutako zehazpenak aplikatuko dira.

Azken xedapena

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez, Bardeetako Tiro Poligonoa deuseztuari buruzko zenbait erabaki har daitezen premiatzen da

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Bardeetako Tiro Poligonoa deuseztuari buruzko zenbait erabaki har daitezen premiatzen da". Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Biltzarreko Mahaiari:

Bardeak elkarrekin ustiatzen dituzten udalek behin eta berriz adostu dute Bardeetako Tiro Poligonoa deuseztu behar dela. Ondokoak daude ematen dituzten arrazoien artean: ehiza-hegazkinen gauez egiten dituzten etengabeko hegaldiak, abiadura handian eta zarata izugarriarekin egiten dituztenak eta herrien gainetik soinuaren abiadura gaindituz egiten dituztenak, beren ariketak egiteko

Bardeetako Tiro Poligonora bidean doazela. Ariketa horiek gogaikarriak izateaz gainera, arriskuak ere badira inguruko herrietako biztanleentzat.

Espainiako Gobernuak alternatibak bilatzen ahal ditu eta bilatu beharko ditu tiro-praktikak jendeguneetatik urrunago dauden eta balio ekologiko gutxiago duten beste poligono batzuetan egiteko. Bere aldetik, Bardeetako Batzarrek Tiro Poligonoren erabilera-kontratuaz landa, bestelako dirubaliabideak lortu behar ditu, hain zuzen ere poligonoaren deusezteia inor kaltetu gabe lortzeko.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu diogu Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari:

"1. Nafarroako Parlamentuak protesta gogorra egiten du gauez egiten diren hegaldiengatik, herrien gainetik egiten diren hegaldiengatik eta soinuaren abiadura gainditzeengatik, beren ariketak egiteko Bardeetako Tiro Poligonora bidean doazen ehiza-hegazkinen egiten dituztenak.

2. Espainiako Gobernuak Defentsa Ministerioa premiatzen da poligono horretako tiro praktikak eten ditzan.

3. Bardeetako Batzarra eta Defentsa Ministerioa premiatzen dira ez ditzaten kontratu berri bat sina Tiro Poligonoa erabiltzeko, eta Tiro Poligono hori deuseztu dezaten."

Iruñean, 1998ko ekainaren 8an

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du soldaduntzaren ordezkotza zerbitzua eta derrigorrezko soldadutza desagertzearen alde dagoela

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du soldaduntzaren ordezkotza zerbitzua eta derrigorrezko soldadutza desagertzearen alde dagoela". Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietako emendakinek aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. eta 193. artikuluen babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran izapidatua izan dadin:

Intsumisoen egoeraren azken aldaketaren ondoren, gero eta zentzugabeagoa da Soldadu-

tzaren Ordezko Zerbitzua mantentzea. Armada Profesionala heltzeaz dagoelarik, oraindik zentzugabeagoa da. Horregatik, beharrezkoa da Soldadutza Ordezko Zerbitzua eta Obligaziozko Soldadutza lehen bait lehen desagertzea.

Badaude moduak Obligaziozko Soldadutza desagertzean Armadaren ahalmen operatiboa murriztea ez gertatzeko, eta beharrezkoa litzateke horiek abiaraztea, guda-eginkizun baino bake-eginkizun gehiagorekin, gaur egun. Adibidez, Soldadutza bolondresentzat utziz. Horrek abantailaren bat ekarri beharko luke, administrazio militarri dagokionean, beti ere.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak honako erabaki-proposamen hau onar dezan proposatzen da:

Erabaki-proposamena

1.- Nafarroako Parlamentua Soldadutza Ordezko Zerbitzua eta Obligaziozko Soldadutza berehala desagertzearen alde agertzen da.

2.- Erabaki hau Estatuko Gobernuari eta Espainiako Gorteei igortzea.

Iruñean, 1998ko ekainaren 8an

Bozeramailea: Juan Cruz Alli Aranguren

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Bardeetako Tiro Poligonoaren aurka dagoela

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Bardeetako Tiro Poligonoaren aurka dagoela". Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa

Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietako emendakinek aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduaren babespean, hurrengo mozioa aurkeztu du Foru Araubide Batzordean eztabaidatzeko:

Tuterako Udalak, joan den maiatzaren 29an egindako ohiko Osoko Bilkuran, mozio bat onetsi zuen protesta egiteko tiro poligonoa erabiltzeak sortzen dituen eragozpenengatik, arraseko hegaldien, soinuaren abiadura gainditzearen, gaueko hegaldien eta abarren ondorioz.

Horiek horrela, hurrengo erabaki proposamena aurkeztu dut:

1. Nafarroako Parlamentuak bere borondate irmoa adierazi du, Erriberako udalekin eta Bardeetako Batzarrarekin batera, Bardeetako tiro-poligonoaren iraunaldia ez luzatzeko, 2.001. urtean bukatuko den indarreko errentamendu-kontratua baino gehiago.

2. Nafarroako Parlamentuak protesta gogorra adierazi du gaueko hegaldiak, Tuterako hiriaren gaineko hegaldiak eta soinuaren abiadura gainditu egiten direlako, Tuterako hiriko Udaleko Osoko Bilkurak joan den maiatzaren 29an salatu bezala.

3. Nafarroako Parlamentuak haxe erabaki du, Bardeetako tiro-poligonoa deuseztearen alde eta aipatu poligonoak Nafarroako herritarren zati bati eragiten dien eragozpenen aurka lan egiteko konpromisoari jarraituz: erabaki hau Defentsa Ministerioari, Nafarroako Gobernuak Lehendakariari eta komunikabideei bidaltzea.

Iruñean, 1998ko ekainaren 11n
Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ureztalurrei buruzko plan bat bidal dezan

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako ureztalurrei buruzko plan bat bidal dezan". Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena oneste, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari eta Nekazaritza-gaietarako bozeramaileak, honako mozio hau aurkezten du, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean eztabaidatua eta bozkaturia izan dadin:

Nekazaritzaren sektoreak birmoldaketa garrantzitsua izan du Nafarroan azken urteotan; isilik eta piskanaka, astindu handirik gabe, zegoen nekazaritza tradizionala gaur egungo nekazaritza mekanizatu, produktibo eta arrakastatsua bihurtu da, Espainiako erkidegoen batezbestekoarekin alderatuz. Bere modernizazio eta eraginkortasunari oraindik ere bultzada emateko beharra duen nekazaritza da, munduko ingurune gero eta lehia-korrangoari egokituko baldin bazaio, iraganean izandako barne-hesi eta babesak eraisten ari baitira.

Gaur egun, Nafarroan nekazaritzak ez du balio ekonomiko edo produktiborik soilik edo nagusiki, balio hori edukitzen segitzen badu ere, nahiz eta azken hamarkada hauetan nekazaritzak gure Komunitateko enpleguan eta guztizko produkzioan duen partehartzea jaitsi den.

Nekazaritza bada, halaber, landa-inguruneak garatu egiten dituen gizarte-elementu bat. Populazio txikia duten guneak despopulatzea ekiditen du, populazioaren hiri eta gune nagusietarako lekualdatzea motelduz, gure Komunitateko hainbat eskualdetan enplegua mantenduz, inguru geografiko zabaletan basamortutzea eta higadura eragotziz eta landa ingurunearen kultura eta artisautea berekiak iraunaraziz.

XXI. mendeak dakarzkigun erronken aurrean (ekonomia lehiakorragoa iraganeko Estatu-babesik gabe), gure Komunitateak jakin egin behar du dauzkan baliabide guztiek eskaintzen dioten potentziala erabiltzen, giza-baliabideak zein naturalak, lurraldekoak, energiazkoak, enpresenak, ekonomikoak, publikoak eta abar direla ere.

Baliabide horiek guztiak abian jarri behar dira modu adimentsuan eta elkarren arteko koherentzia mantenduz, Nafarroako nekazaritza Europako eta mundukoaren atzetik gera ez dadin eta gure Komunitateko herritarren gizarte-ongizateari eta bizi-kalitateari lagungarri izan dakien.

Nekazaritza-politikari dagokionez, hainbat jarduketa burutu daitezke; horien artean, plangintza-ren bitartez ureztalurrak gehitzea. Hain zuzen, ureztalurren azaleraren batezbestekoa Espainiako eta Europako beste Komunitateetako baino askoz ere baxuagoa da, eta taxuzko aurrerakada bat beharrezkoa izanen du Europako Komunitatekoaren mailan ipini nahi baldin badugu.

Nafarroak bere lurraldean baldintza ezin hobekak dauzka ureztalurrei buruzko politika hobetu eta burutzeko:

- Eraendu gabeko baliabide hidriko oparoak dauzka, lurrazaleko uretatik datozenak, eta gehiago erabil daitezke, modu arrazionalen eta ingurugiroa errespetatuz.

- Bertako baldintza klimatikoek behar adina eguzki-energia egotea eta, oro har, tenperatura epela izatea ziurtatzen dute.

- Lurzoruak ezaugarri edafologiko oso aproposak dauzka ureztalurretako labore berekiak hazteko.

- Nafarroako nekazaritza nabarmenki bilakatu da eta gaur egun nekazaritza profesional eta modernizatua da, bere etorkizuna ziurtatu ahal izateko egoera berrietara egokitzeko gauza izanik.

- Gure Komunitateko nekazaritza-elikagaiek gero eta eskari handiagoa daukate, eta hori hazten ari da produktuen kalitate, zainketa eta prezio lehiakorrenengatik.

- Nekazaritza-elikagaien sektore industrial garrantzitsua eta dinamikoa dauka, gero eta garrantuagoa dagoena, eta horixe da Nafarroako ekonomia-aren egonkortasunaren eta hazkuntza-aren zergatietako bat.

- Energia berri-takorren edo erregai fosilen ordezkoeen eskaerak etorkizun baikorra ematen dio ingurugiroarekin edo energiarekin zerikusia duten aplikazioak dituen elikaduraz kanpoko laborantzari.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako inguru zabale-tan burutu daitezkeen ureztalurrei buruzko politi-kei bultzada ematea, titularitate publikoko uretan oinarrituz, baliabide ekonomiko publikoen bitartez, eta administrazio publikoen laguntzarekin (Estatu-koa, foru- edo toki-mailakoa), ezin da utzi hainbat lekutan horretarako egon daitekeen eskariaren baitan soilik, ezta inprobisazioaren baitan, eta ezin da ere ikuspegi orokorrik gabe egin, edo gizarteko eragileak eta erakundeak kontuan hartu gabe, eskubidea baitaukate horren berri izateko eta, hala bada, horren prestaketan edo kudeake-tan parte hartzeko.

Egin beharreko jarduketan garrantziak eta horretarako ukitzen diren baliabideen kopuruak datozen urteetan ureztalurrei buruzko politika Nafarroan modu planifikatuan egitea galdatzen dute.

Egin beharreko lanak duen interesa dela-eta, beharrezkoa da gure Komunitateko Administrazio-aren zuzendaritza eta kontrolpean, hau da, legea-ren arabera horretarako eskumena duenaren, koordinatzea ureztalurrei buruzko politikarekin zerikusia daukaten jardura publiko edo pribatuak.

Nafarroako Gobernua da datozen urteetan ureztalurrei dagokien nekazaritza-politika zuzen-tzeko eginkizuna bere gain hartu behar duena, Nafarroako Parlamentuaren laguntza eta kontrola-rekin; beharrezkoa denean, Estatuko nekazaritza-politikarekin eta politika hidraulikoarekin koordina-tu beharko du, bereziki Ureztalurrei buruzko Plan Nazionalarekin, Ebroko Arroko Plan Hidrologikoa-rekin eta Plan Hidrologiko Nazionalarekin.

Arazoi horiek guztiak direla-eta, beharrezkoa da Nafarroak, lehen bait lehen, prest edukitzea plangintza-dokumentu bat, ureztaketa-arloan epe ertain eta luzerako dituen jarduketa-aurreikuspe-nak jasoko dituen; nekazaritza-sektoreari bultza-da emateko, gara dadin laguntzeko eta gure Komunitateko landa-ingurunea hobetzeko asmoa izanen duen dokumentu bat, hain zuzen ere.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki-proposa-men hau proposatzen da, Biltzar honetako Neka-zaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsi dezan:

Erabaki-proposamena

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Biltzar honi gehienez ere hiru hilabeteko epean bidal diezaion Ureztalu-rrei buruzko Plan berri bat, onetsia izan dadin. Plan horrek dauken ureztalurrak modernizatzeko eta ureztalur berriak eratze-ko epe ertain eta luze-

rako aurreikuspenak, Nafarroak dituen edo aurreikusita dituen baliabide hidrikoen erabilera arrazionalen oinarriturikoak, jasoko ditu.

2.- Planak honako eduki hau izan beharko du:

- Ureztalurren arloan gaur egun dagoen egoeraren deskribapena, etorkizunari begira antzematen diren arazoei buruzko diagnostikoa eta horien bilakaeraren aurreikuspena.

- Planarekin lortu nahi diren helburuak.

- Ureztalurrak hautatzeko edo, hala bada, horien mugak ezartzeko irizpideak.

- Plan hau garatzeko beharrezkoak diren jarduketak eta neurriak.

- Hori garatu ahal izateko azpiegitura publiko nagusien aipamena.

- Hori garatu eta betetzeko gutxi gorabeherako egutegia, epe ertain eta luzean.

- Planari esleituriko baliabideen estimazioa, beste erakunde publikoetatik lor daitezkeen finantzaketa-iturrien analisiarekin batera.

- Aipaturiko Planaren edukia garatzeko proposa litezkeen legezko ekimenak, hala bada.

3.- Helburuen artean, Planak arreta berezia eskainiko die honako hauei:

- Nekazaritzako elikagaien industria garatzea.

- Ureztaketari eta nekazaritza-industriari loturiko enplegua sortzea, bereziki nekazari gazteak erakartzeari dagokionean.

- Ureztalurretarako jarritako baliabide hidrauliko erabileraren arrazionalizazioa eta efizientzia, eta ureztatzailari aholkuak emateko zerbitzu baten abiarazpena aztertzea.

- Higaduraren eta basamortutzearen kontrola eta horiei aurrea hartzea.

- Energia berriztakor eta ordezkoei bultzada ematea, horretarako apropos diren laboreetan oinarrituz.

- Elikaduraz kanpoko laboreen balizko produkzioa aztertzea eta energia produzitzeko egokiak diren ikertzea.

- Ureztalurren bateragarritasuna ingurugiroarekin, naturguneekin eta basa espezie babestuekin edo babes handiagoa behar dutenekin.

Iruñean, 1998ko ekainaren 12an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turri-llas

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aragoiko Diputazio Orokorrarekin hitzarmen bat izenpetu dezan Las Planas de la Negrán jartzeko den parke eolikoa gelditzeko

XABIER VELEZ MEDRANO FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Aragoiko Diputazio Orokorrarekin hitzarmen bat izenpetu dezan Las Planas de la Negrán jartzeko den parke eolikoa gelditzeko". Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agin-

tea eta haren eztaibada eta bozketa Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Xabier Velez Medrano, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua eta ondokoek ezarritakoarekin bat, hurrengo mozioa aurkeztu du, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Gobernuak, 1997ko abenduaren 22an hartu ebazpenean, ez du egokitzen jo Bardeako Plana de la Negrán energia eolikorik jartzea. Erabakia oinarritzeko, izapidatzen ari diren natur parkeetan instalazio eolikorik ez jartzeko asmoa agertu zuten.

Era berean, Nafarroako Bardeetako Batzarrak ez du onztat hartu instalazio horiek La Plana de la Negra jartzea.

Aldi berean, Aragoiko Diputazio Nagusiak aurreikusi omen du aerogeneradoreak jartzea Las Planas de la Negrán.

Bi lurralde autonomo izan arren, bien arteko ingurugiro-lotura begibistakoa da, eta beraz, Nafarroako arauekin eragozten zen kaltea berdin-berdin gertatzen dela Aragoiko proiektuan.

Erabaki proposamena:

1.- Parlamentu honek Nafarroako Gobernua premiatu du ahalik eta lasterren irits ditzan beharrezko akordioak Aragoiko Diputazio Orokorrarekin lankidetzat hitzarmena izenpetzeko, La Plana de la Negrán parke eolikoa jartzeko asmoa geldiaraz dezaten, ingurugiro-unitate banaezina osatzen duelako Nafarroan dagoen lurraldearekin.

Iruñean, 1998ko ekainaren 12an

Foru Parlamentaria: Xabier Velez Medrano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sendagileek preskribitzeko askatasunaren printzipioarekin loturiko neurriak har ditzan

JOSE M^a EZPELETA MARTINEZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

José M^a Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sendagileek preskribitzeko askatasunaren printzipioarekin loturiko neurriak har ditzan". Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

José María Ezpeleta Martínezek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeko Osasun Batzordeko bozeramaileak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko mozioa aurkeztu dio Biltzarreko Osoko Bilkurari, eztabaida dezan.

Alderdi Popularreko Gobernuak behin betiko erabakia hartu du jada: Baimena ematea Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalari eta lan istripuen eta gaisotasun profesionalen mutuei aldi baterako ezintasuneko baja klinikokan diren gaisoei altak emateko –ondorio ekonomikoetarako—. Erabaki horrek osasun sektore osoaren aho bateko oposizioa du, izan ere atzerapausu sozial argia delako.

Heldu den uztailaren 1etik aurrera Oinarritzako Osasun Laguntzako sendagileei aldi baterako ezintasunarengatik alden kontrola kenduko dien Errege Dekretu hori atzerapausu soziala da gaisoentzat, izan ere bidea ematen duelako gaisotasunaren garapena ezagutzen ez duten pertsonen alta emateko, erabat bigarren mailan utzita oinarritzako osasun laguntzako sendagilea, aldi baterako ezintasuna bezain garrantzitsua den gai batean.

Gobernuaren jarduketa horrek susmopean uzten jartzen ditu Osasun Publikoan ari diren sendagileak, gaisoen duintasunaren aurkako atenta-

tua da eta beste eraso bat da osasun sistema publikoaren aurka, osasun sistema publikoko gaisoen eta sendagileen eskubidea diren autonomia eta jarduketa integrala urratzen duena.

Jarduketa horrek argi uzten du Aznar jaunaren Gobernuak duela bi urte hasitako joera: osasun prestazioak interes ekonomizisten menpe jartzea eta Lan Ministerioak Osasun erabakietan pisu handiagoa izatea Osasun Ministerioak baino; gainera azken ministerio horrek ez du jakin ez erabiltzaileak, ez profesionalak defenditzen.

Gainera, litekeena da ez lortzea aurreikusitako aurrezki ekonomizista hori eta osasun publikoaren sisteman burokrazia areagotzea, profesionalen artean arazo etikoak sortzea eta gaisoei buruzko isilpekotasuna arriskuan egotea.

Hori guztia dela eta ondoko erabakia proposatzen da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren neurriak har ditzan, izatez sendagileek preskribitzeko askatasunaren printzipioa eta aldi baterako ezintasuneko alteen kontrolean gaisoei laguntza integrala emateko eskubidea errespeta daitezen.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuko Gobernuari adieraz diezaion lan bajei buruzko errege dekretuaren aurka dagoela, osasun sistema publikoko sendagileei aldi baterako ezintasunarengatik kontrola kenduko diena, atzerapausu soziala delako.

Iruñean, 1998ko ekainaren 12an

Foru Parlamentaria: José M^a Ezpeleta Martínez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Ave María” ikastetxean “D” ereduan matrikulatutako ikasleen gela zatibitu dezan

JUAN ANDRES PLATERO ALDA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Juan Andrés Platero Alda Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “Ave María” ikastetxean “D” ereduan matrikulatutako ikasleen gela zatibitu dezan”. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren ezaibada eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakionak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaikiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Juan Andrés Platero Alda, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikita, Foru Parlamentariak, talde horren izenean, hurrengo mozioa aurkeztu du Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatzeko:

Jakin dugu Rotxapeako Ave María ikastetxean, matrikulatzerakoan, 30 ikaslek egin dutela D ereduan matrikula.

PSOEk ondoko erabakia hartzea proposatzen du:

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatu aipatutako ikastetxean D ereduko gela zatibitu dezan matrikulatutako 30 ikasleak onartu ahal izateko.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Foru Parlamentaria: Juan Andrés Platero Alda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak salbuespen gisa “San Francisco” ikastetxean “D” ereduan matrikulatutako ikasleekin neurriak har ditzan eskatzen da

JUAN ANDRES PLATERO ALDA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Juan Andrés Platero Alda Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak salbuespen gisa “San Francisco” ikastetxean “D” ereduan matrikulatutako ikasleekin neurriak har ditzan eskatzen da”. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Juan Andrés Platero Alda, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikita-ko Foru Parlamentariak, talde horren izenean, hurrengo mozioa aurkeztu du Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatzeko:

Jakin dugu Iruñeko alde zaharreko San Franzisko ikastetxean, aurrematrikulatzerakoan, 27 ikasleak eskatu dutela D eredua, eta beraz, 2 ikasleak beste ikastetxe batzuetara joan beharko dutela, horrela, ratioa errespetatzeko (gela bakoitza/25 ikasle). Horiek horrela, PSOEk ondoko erabakia hartzea proposatu du:

Salbuespen gisa, ikastetxe horretan D eredua eskatu duten 27 ikasleak onartzea. Ikasle kopurua handituko balitz, laguntzeko, behar hainbat irakasle jarriko dira ikastetxean, eta, bestela, gela zatibitu egingen da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Foru Parlamentaria: Juan Andrés Platero Alda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuapremiatzen da Arte Ederretako Eskolan, arte batxilergoaren irakaskuntzan, “D” eredua ezar dezan

JUAN ANDRES PLATERO ALDA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Juan Andrés Platero Alda Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuapremiatzen da Arte Ederretako Eskolan, arte batxilergoaren irakaskuntzan, “D” eredua ezar dezan”. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Hezkuntza

eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Juan Andrés Platero Alda, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikita-ko Foru Parlamentariak, talde horren izenean, hurrengo mozioa aurkeztu du Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatzeko:

Iruñeko Arte Eskolan arte batxilergoa egitea eskatu duten ikasleen izen zerrenda aztertuta ikusi dugu 33 ikaslek eskatu dutela batxilergo hori D ereduan egitea.

Ikasle horiek, Nafarroako ikastetxe guztietakoak, euskaraz (D eredu) egiten aritu dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza; beraz, zentzuzko izanen litzateke ikasketak hasieran aukeratu zuten ereduan jarraitzea.

Bestalde, arte ederretako ikasketak unibertsitatean jarraitu nahi dituztenek Bilbora joan behar-ko dute ez baitago Nafarroan arte ederretako fakultaterik. Bilboko unibertsitatean kreditu kopuru handia euskaraz da, eta zailtasunak gehitzea litzateke arte-batxilerrean D ereduan berariazko prestakuntza ez eskaintzea.

Horiek horrela, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu batzorde honetan:

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzen da Iruñeko Arte Eskolan D ereduko arte-batxilerra jar dezan ikasleen eskaera betetzeko eta horrela ikasketen garapen osoa ahalbidetzeko.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Foru Parlamentaria: Juan Andrés Platero Alda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “José M^a Iribarren” ikastetxe publikoan eta “Ermitagaña BHI”n “D” ereduko lerro bana ireki dezan

JUAN ANDRES PLATERO ALDA FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Juan Andrés Platero Alda Foru Parlamentari jaunak hurrengo mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “José M^a Iribarren” ikastetxe publikoan eta “Ermitagaña BHI”n “D” ereduko lerro bana ireki dezan”. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Juan Andrés Platero Alda, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikita-ko Foru Parlamentariak, talde horren izenean,

hurrengo mozioa aurkeztu du Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatzeko:

Alderdi Sozialistak betik defendatu izan du hezkuntza-eskaintza publikoak gizarteak eta ikasleek beraiek eskatzen dituzten hezkuntza aukera guztiak eman behar dituela, horrela lortuko baita pertsonaren garapen osoa eta gizarte-erronkei erantzutea.

Eskaera horietako bat da euskarazko hezkuntza, D eredu, hezkuntza publikoan.

Guraso talde batek Ermitagaña, Mendebaldea eta Donibanen hezkuntza publikoak D eredu eskaintzea eskatu duenez, Alderdi Sozialistak ondoko erabakia hartzea proposatu du:

Nafarroako Gobernua eta Hezkuntza eta Kultura premiatzen dira hurrengo ikasturterako D lerroa ireki dezaten José María Iribarren Ikastetxe Publikoan eta D eredu baimen dezaten Ermitagaña BHI

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Foru Parlamentaria: Juan Andrés Platero Alda

F saila:
GALDERAK

Osasunbideko osasun zentroetarako Arrow Iberica enpresak egindako osasun materialaren horniketari buruzko galdera*ROSARIO VILLANUEVA ITURRALDE FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak Osasunbideko osasun zentroetarako Arrow Iberica enpresak egindako osasun materialaren horniketari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Rosario Villanueva Iturralde andreak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Bozeramaileak, Parlamentuko

Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaion:

1. Ea Arrow Ibérica enpresak, katetereak egiten dituen izen bereko multinazional amerikarren Espainiako atalak, 1996 eta 1997 urteetan hornitu dituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun zentro guztiak.

2. Hornidura hori izan bada, ea manipulaziorik antzeman den materialaren iraungipen datan edo bestela zehaztasun akatsak adierazleetan.

3. Ea material hori lehiaketaren bidez edo zuzenean erosi zen. Hala bada, ale bakoitzaren erosketa prezioa jakin nahi dugu.

Iruñean, 1998ko ekainaren 8an

Foru Parlamentaria: Rosario Villanueva Iturralde

“Kohesio Fondoak”, 36365-1 lerroa, aurrekontu kontusailari buruzko galdera*MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Kohesio Fondoak”, 36365-1 lerroa, aurrekontu kontusailari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaionten:

Kohesio Fondoak, 36365-1 lerroa izena duen kontusaila dela eta, ondokoa jakin nahi da:

1. Noiz sartu da 1998ko Aurrekontuetan, zein programatan eta zenbat diru du Europar Batasunetik etorritako fondoetatik?

2. Ibaiak arazteko eta saneatzeko Plan Gidaria izeneko kontusailaren kreditu-handitzeaz gainera, zein aurreikuspen egin dira kontusailaren banatzeko?

Iruñean, 1998ko uztailaren 10ean.

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco.

Ekonomia Zuzendari Orokorrak emandako 201/98 Ebazpenak agintzen duen aurrekontu aldaketari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Ekonomia Zuzendari Orokorrak emandako 201/98 Ebazpenak agintzen duen aurrekontu aldaketari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaiten:

Ekonomi Zuzendari Nagusiaren apirilaren 17ko 201/1998 Ebazpena ikusirik -haren bidez hainbat aurrekontu-aldaketetarako baimena ematen da, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eskatuta-, ondokoa jakin nahi da:

Ea Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea izeneko kontusailaren kargura eginiko kreditu-handitze horiek egiten duten 2.264 milioi pezetako zenbatekoak xede zehatza duen, nonbait Herrilan Departamentuko 1998ko Aurrekontu Orokorretan modu egokian aurreikusi ez zena.

1. Hala ez bada, zenbateko hori ez zegoen aurreikusia eta Departamentu horren jardueraren baterako izanen da. Hala bada, zein proiektu eta obra burutu behar dira?

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

“Errentamenduen Arbitraje Batzordearen Baloreetarako Dietak” 26460-5 lerroa izeneko kontusailera egindako kreditu-transferentziari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Errentamenduen Arbitraje Batzordearen Baloreetarako Dietak” 26460-5 lerroa izeneko kontusailera egindako kreditu-transferentziari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaiten:

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak berriki eskatu du kreditu-transferentzia bat egitea Landa Errentamenduen Batzar Arbitraleko batzarkideendako dietak, 26460-5 lerroa izeneko kontusailera.

Hori dela eta, jakin nahi da:

1. Landa Errentamenduen Batzar Arbitraleko batzarkideen dieten ordainketa dela eta, zein beharizan zehatzek justifikatzen dute kreditu-handitze hori, Departamentu horretarako Nafarroako Aurrekontuetan aurreikusi ez direnak?

2. Diru kopurua txikia bada ere, zergatik kargatu da ENParen erreforma. Ingurugiro Programak kontusaileran?

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

“Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” kontusailaren kargura baimendutako mugimenduei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” kontusailaren kargura baimendutako mugimenduei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco, Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaiten:

Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea, 35465-2 lerroa izeneko kontusailaren aurka baimendu diren mugimendu batzuk direla eta, ondoko datuak ezagutu nahi dira aurrekontua hobeki kontrolatu ahal izateko:

1. Kontusail horren -35465-2 lerroa- hasierako zenbatekoa.

2. Kontusail horren -35465-2 lerroa- kargura departamentuei eman zaizkien kreditu-handitze guztien azalpena, 1998ko ekainaren 15a bitartean.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Etxegarate destolesteko obren bukaerari buruzko galdera

PEDRO ROMEO LIZARRAGA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen Pedro Romeo Lizarraga Foru Parlamentari jaunak Etxegarate destolesteko obren bukaerari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Pedro Romeo Lizarraga, Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeari atxikiriko foru parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Herrilan Departamentuko Kontseilariari, idatziz erantzun diezaion:

Ekainaren 9an, Herrilan Kontseilariak Sakana-ko hainbat alkateri eta Etxegarate destolestearen aldeko Plataformako Iraunkorraren bi ordezkari Altsasuko Udaletxean eginiko bilera batean jakinarazi zien Departamentuak erabaki zuela Etxegarateko destolespeneko azken zatiko obrak bukatzeko berandueneko data gisa 2002. urtea finkatzea.

Hain zuzen ere, eta ildo beretik, gure Parlamentari Taldeak, Ezker Abertzaleak, mozio bat aurkeztu zuen Herrilan Batzordean (joan den apirilaren 1ean eztabaidatu zen), Gobernua Premiatzen zuena Errepideei buruzko Planean aurreikusten diren obra horiek hasteko eguna aurreratu zezan. Mozio hori baztertua izan zen, UPN, PSOE eta CDNren botoekin osaturiko gehiengoaren bitartez.

Orain arte Gobernuak gai honen inguruan izan duen jarrera harrigarri samarra gertatzen dela egia bada ere, egia da, baita ere, gure talde politikoa poztu egiten dela Herrilan Departamentuak hartutako erabakia dela-eta, inguru horretako biztanleentzat eta garraiobide hori erabili ohi duten pertsonentzat zalantzarik gabe erabaki positiboa dela uste duelako.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1.- Zein baldintza objektibo eta argudio tekniko eta/edo politiko dela-eta aldatu du jarrera Gobernu honek, gure parlamentari taldeari –de facto– arrazoa emateko?

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Foru Parlamentaria: Pedro Romeo Lizarraga

Oliba sektorearen inguruan burututako jardueri buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak oliba sektorearen inguruan burututako jardueri buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1996ko azaroan, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak oliba olioari buruzko Merkatuaren Antolamendu Amankomuna aldatzeko proposamenaren aurkako erabakia hartu zuen.

Erabaki horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen zen Nazioko Gobernura jo zezan, horrela Espainiako oliba-sektorea defendatzeko. Erabaki hartan esaten zen ekoizpenerako laguntza ukaezina zela, mesedegarri izanzen zelako olibadiak eta oliba olioaren industria gaurkotzeko eta baita oliba nekazarientzako ere.

Halaber, zera eskatzen zen: bermaturiko gehieneko kopurua gehitzea, eskuhartze prezioari eustea, oliba olioaren bestelako hazi-olioekin nahastea debekatzea oliba olioaren kalitatea zaintzeko, ontziratze kontrolak indartzeko iruzurrak saihestearren, eta kontsumorako laguntzak defendatzea.

Azken aldean haxe esaten zuen erabakiak: Nafarroako Parlamentuak premiatu egiten du Nafarroako Gobernua aintzat har dezan neurriak onestea, ekoizle eta kooperatiba sektorearekin bat, olibondo lantzea bultzatzeko, ekoizleendako ekoizpen errentagarria gehitzeko eta olio errota eguneratzeko, ingurugiroa errespetatuz kalitate handieneko olio lortzearren.

Bestalde, aurreko astean, Biltzar honetako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak Oliba Oliaren aldeko Mahaiari laguntza adierazten zion erabakia hartu zuen eta baita olibondoaren alde ari diren instituzio, erakunde eta entitate guztiak.

Erabaki horretan, Espainiako oliba-sektorea behar bezala bermatuta izan arte oliba oliari buruzko Merkatuaren Antolamendu Amankomuna gelditzea premiatzeaz gain, kezka ere adierazi zen, hain zuzen ere, Europako Batzordearen aurrean Nekazaritza Ministroaren negoziatzeko moduagatik; horrela jarraituz gero ez dira berdintzatuko gure oliba olioaren eta Europako beste ekoizle batzuenak, eta nekazari txiki eta ertainek ustiatzen dituzten 700.000 hektarea olibondo tradizional galtzeko arriskua ere badago; halaber, 20

milioi jornal ere galduko lirateke langabezi asko dagoen lekuetan.

Azkenean, orain gutxi hartutako erabakiaren 4. puntuan zera esaten da: Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du haxe eskatu dezan: benetako ekoizpenerako laguntzetan kontuan izan ditzala gizarte-aldeak, ingurugirokoak eta kalitateari dagozkionak, ekoizkortasun txikiagoa duten aldeetako olibondoek, Nafarroakoak kasu, baldintza duinetan iraunen dutela ziurtatzeko.

Nafarroako Gobernuak Nekazaritza Departamentuak gure komunitateko oliba-sektorearekin zerikusia izan duten jarduketak ahal den zehatzen jakiteko ondoko galderak erantzutea eskatzen da:

1.- Zein hitzarmen egin ditu Nafarroako Gobernuak ekoizleekin eta kooperatibekin gure komunitatean olibondoaren lantzea bultzatzeko?

2.- Zein neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako olibo ekoizleen ekoizpen errentagarria handitzeko.

3.- Zein jarduketa egin ditu Nafarroako Gobernuak olio-errotak eta olio-industriak gaurkotu eta horrela kalitate goreneko olio lortzeko?

4.- Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentuaren erabakiak bete eta benetako ekoizpenari laguntza eskatu, eta laguntza horrek kontutan har ditzan gizartearekin zerikusia duten alderdiak eta baita ingurugiroa eta kalitatea?

5.- Zein jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak gure komunitatean dagoen olibo-sektoreak duintasunez iraun ahal dezan?

Iruñean, 1998ko ekainaren 9an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Baztango aldean gertatu diren telebista-emisioen mozketei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Baztango aldean gertatu diren telebista-emisioen mozketei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Telebista-emisioen mozketak gertatu dira Baztango aldean eta inguruetan, urtea hasi zenetik. Egonezina sortu du horrek eskualde horretako herritarrengan.

Gorramendin dagoen telekomunikazio zentro-tik jasotzen dituzte seinaleak aipatu eskualdean. Telekomunikazio zentroa Nafarroako Gobernuak eta Retevisiónek itundutako instalazioa da.

Baztango aldean gertatu diren telebista-emisioen mozketak direla-eta, hurrengo galderei erantzutea eskatzen dut:

1.- Zer udal eta tokitan hartzen dute seinalea aipatu zentrotik? Zenbat emisio-mozketa gertatu dira 1998ko urtarrilaren 1etik aitzina, Gorramendiko telekomunikazio-zentroak hartzen duen inguruan? Noiz gertatu dira eta zenbat iraun du horietako bakoitzak? Zenbat ordu pilatu da aurten zerbitzurik eskaini gabe?

2.- Zeintzuk dira lehen aipatu mozketen arrazoiak? Arrazoi berberak izan al dira denentzako?

3.- Zer aukera tekniko dago ikusi diren akatsak konpontzeko? Zer jarduketa aurreikusi du Nafarroako Gobernuak aipatu mozketak konpontzeko?

4.- Nafarroako Gobernuak egin al du aurreikusitako jarduketan aurrekontu-balioespena? Zenbat jotzen du horren kostuak, guztira? Noizko aurreikusi du bukatuko dituela inguru horretako herritarrentzako zerbitzuak hobetzeko behar diren jarduketak?

5.- Zer ituntze-mota du Nafarroako Gobernuak Retevisiónekin Gorramendiko telekomunikazio-zentroa dela-eta? Ezarritako baldintzak eraginik jaso al dute emisioetan izandako akatsen ondorioz?

Iruñean, 1998ko ekainaren 12an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Tausteko Udalerriko Plana de la Negra izeneko tokian parke eoliko bat jartzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Tausteko Udalerriko Plana de la Negra izeneko tokian parke eoliko bat jartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillas, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregalamentuko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du idatziz erantzun diezaioten.

Aragoiko Diputazio Nagusiak, berriki eman duen ebazpen batez, baimen administratiboa eman du Plana de la Negra, Plana de Enmedio eta Plana de Sancho Abarca izeneko tokietan parke eoliko bat jartzeko, Tausteko udalerrian (Zaragoza). Parke horrek 225 kw.ko 23 aerogeneradore izanen ditu eta 600 kw.ko 8 aerogeneradore.

Gure komunitatean, Nafarroako Energia Eolikoaren Produkzio-Azpiegituren Udal Eraginari buruzko Plan Sektorialean, aurreikusita zegoen Plana de la Negra izeneko tokian (Nafarroa) parke eoliko bat jartzea. Beranduago, Nafarroako Gobernuak aipatu Plan Sektoriala aldatu zuen, parke eolikoen instalazioa antolatzeke.

Aldaketa horretan bi modutako parke eolikoak aurreikusten dira: "proposatuak" izenarekin ezagutzen direnak, alegia ezarritako programazio baten arabera burutzea aurreikusi direnak, eta "erreserbako parkeak". Azken horiek eraikitzeke baldintza da proposatutako parkeetako baten edo batzuen potentzia edo produkzioa ordeztzeko edo osatzeko balio izatea.

Proposatutako parkeen artean, programazio bat ezarri da bi aldi bereizten dituen: 2000. urtea baino lehen burutzea aurreikusi direnak eta Herrien gaindiko Eragin Planaren azterketa berria

egin ondoren 2000. urtetik aurrera eraikiko direnak.

Plana de la Negra izeneko tokian (Nafarroa) instalatzea aurreikusi den parke eolikoa ez da sartu proposatutako parkeetan, erreserbakoetan baizik, hau da ez da aurreikusi, gora-beherarik ez bada, 2000. urtetik aurrera ere instalatuko denik. Aldaketa horren oinarrian dago hemendik gutxira Bardeak Natur Parke deklaratu direla.

Beste aldetik, Nafarroako Bardeetako Komunitateak berriki bukatu du Natur Baliabideak Antolatzeke Planaren prestaketa aldia, izan ere beharrezko urratsa baita lurralde hori Natur Parkea izendatu baino lehen eman. Antolamendu Plan horretan ez da ezarri Plana de la Negra izeneko tokian parke eoliko bat instalatuko denik.

Ikusten denez, alde nabarmena dago bi administrazio ezberdinen artean, alde batetik Aragoi eta bestetik Nafarroa. Alde hori oztopoa da La Negra-ko pinudien alderdi aberatsaren ekosistemari -bi komunitateetan zabaltzen dena- tratamendu ezberdina emateko: ez da amankomuneko ahalegin bat egin interes ekologiko handia duen natur ondare hori zaindu, gorde eta hobetzeko.

Tausteko Udalerriko Plana de la Negra izeneko tokian parke eoliko bat jartzearen inguruan, ondoko galderei erantzutea eskatzen da:

1. Uste al du Nafarroako Gobernuak parke eoliko hori ezartzeak Europan gero eta gutxiago diren estepa-ekosistemetak baten bilakaera oztopatzen duela? Zein arrazoi izan zituen Nafarroako Gobernuak instalazio hori, alegia La Negra-ko parke eolikoa, atzera botatzeko gure Komunitatea ukitzen duen aldean?

2. Enpresa berek sustatzen al dituzte parke eoliko horiek? Zein enpresak aurreikusi zuen edo aurreikusten du, halakorik bada, parke eolikoetako bakoitza instalatzea?

3. Esan al daiteke Babestutako Naturguneko babespeneko bazter-eremua, alegia, erreserba naturaltzat jotako Caídas de la Negra alderdia (RN-37) ukituta dagoela?

4. Egin al du Nafarroako Gobernuak parke eoliko hori Tausteko udalerrian jartzeko espedientearen jarraipena?

5. Egin al du Nafarroako Gobernuak bilera edo kontakturen bat komunitate mugakidearekin

gai hori aztertzeko? Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du jarduketaren bat egitea Aragoiko Administrazioaren irizpidearen aldaketa aztertze-ko?

Iruñean, 1998ko ekainaren 12an.

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Zolina eta Getze aldeko aintziretako lohi kutsakorrei buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Zolina eta Getze aldeko aintziretako lohi kutsakorrei buruz egindako galderaren biderape-na onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaioten.

Zenbait gizarte erakundek salatu duten bezala, Zolina eta Getze aldeko potasa meategi zaharre-

tako aintzirek 18 milioi metro kubiko ur eta lohi kutsakor baino gehiago biltzen dituzte.

Dikeen haustura arriskua berehalakoa ez bada ere, aurreratu beharra dago Doñanakoaren antze-ko tragedia bat gertatu baino lehen. Izan ere, diru-dienez, urtero-urtero isuri txiki batzuk izaten dira Elortz ibaiak gainezka egitearen ondorioz, eta isuri horiek, gainera, azkar asko ailegatzen dira Arga ibaira, ekologi eta nekazaritza kalte handiak sortzeko arriskuarekin.

Hori dela eta, ondokoa jakin nahi da:

1. Ezagutzen al du Nafarroako Gobernuak Zolina eta Getze aldeko aintziretako lohi kutsako-rren arrisku egoera?

2. Aurreikusi al du Ingurugiro Departamentuak jarduketaren bat egitea lohien isuriek sor ditzake-ten hondamendiak ekiditeko.

3. Gobernuak abian jarri al du gune horien inguruan diren eskualdeak leheneratzeko proiektu-uren bat? Halako proiekturik egotekotan, noiz garatu behar da?

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Lizarrako hilerriko general karlisten mausoleoaren lagapenari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 16an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Lizarrako hilerriko general karlisten mausoleoaren lagapenari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaiten.

Lizarrako hilerriko general karlisten mausoleoa –haren gordailuzaina herri horretako herritar bat da– eskaini egin omen zaio Nafarroako Gobernuari, ondare historikoaren lagapen gisa.

Monumentu horrek balio historiko handia du, zalantzarik gabe, bai kokatuta dagoen hiriarentzat, bai Nafarroa osoarentzat ere. Gainera, Nafarroako Parlamentuak erabaki zuen bezala, Liza-

rrak Karlismoari buruzko Museo bat eta Ikasketa Zentro bat izanen ditu –hemendik gutxira, ustez–. Hori dela eta, mausoleo hori proiektu horren kanpoko atal bat izan zitekeen.

Gordailuzaina prest omen dago mausoleo hori Euskal Autonomi Elkarteko hiru aldundietako bati uzteko ere. Horrela -halakorik gertatuz gero- paradoxo bitxia gertatuko litzateke, alegia, Nafarroan kokaturiko obra historiko bat beste komunitate autonomo baten ondare izatera iristea, Karlismoaren Oroitzapen Historikoen aintzinako Museoaren hainbeste ondasun mugikorrek gertatu den bezala.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Prest egonen al litzateke Nafarroako Gobernua mausoleoaren ondare-lagapena bereganatzeko?

2. Utziko al luke Nafarroako Gobernuak beste komunitate autonomo bateko beste diputazio batek mausoleoaren jabegoa onartzea?

3. Zein fasetan dago Karlismoari buruzko Museoa eta Ikasketa Zentroa?

4. Ez al du uste Gobernuak komenigarria dela mausoleoa karlismoaren ibilbide historikoaren barrenean sartzea, Nafarroako Gobernuak Lizarran egin nahi duen museoaren inguruan.

Iruñean, 1998ko ekainaren 10ean

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	---